


Bidean
alkarekin...





Bidean alkarëkin...



*Alkiza'tar Luix eta Elizalde'tar Mariaren
erkontzako zilar-erataietarako (1926-51)
Irigoyen'dar Romanek egiña*

I

Mendi batera igotzea lez
da gizonaren bizia:
be-beian jaio ta goi-goian il,
bion artean egia;
egian, naste, poz eta neke,
aize eder eta izerdia.
Bideko pozak ondo ausnartu
ta izerdi pitsez bustia
dagon kopeta txukatuko dun
lagun ona berextia,
deritzait... pozak ugarituaz
miñak erdi-banatzia.

II

Gora ta gora gaazelarik,
neke-pean erortzean
oso gogoz ats egiten degu:
jañi zurgaitz itzalean,
arpiari belar eze biguna,
zeru garbia gañean,
garo usai ta abere taldeen
"dulun-dulun"-otsa aidean...,
ta an, ao-betex arnasa arturik,
indar-beñitu artean,
begiak erne, ikusi nundik
ta nola araña jun geran.

III

Eta ikusi an beian, uñti,
etxe txuri talde txoa
eliz babesan goxo bildua:
gure eñi biotzekoa!

(Antxe biori sortu zitzaigun
bat izateko asmoa...)
Andik bidea, sube antzean;
erker-eskubi, soroa;
beian ibaia, basoa goian;
an, beñiz, leitza-zuloa,
basoko pixti bildurgarrien
ao zabal antzekoa.

.....

.....

IV

Bizia mendi baten antzeko,
ta mendian guk antera,
gora ta gora beti jun bear
bere gatur ura antzera.
Asieran bi bide genitun,
biurtu ziran batera,
alkartu giñan, eta geroztik
bideko lagunak gera.
Antxe beartu giñan lore ta
pozak erdi-banatzerá,
ta izerdi, neke ta naigabeetan
beti leial laguntzera.

V

Eskeřak, Jauna, eskeřak Ľuri
 nere almen guziakin:
 Ľure laguntza ta gugan pixtu
 zan maitasun suarekin,
 gaur ogei ta bost urte ditugu
 mendian gora alkařekin,
 beian utzirik, an eta emen,
 zorion ta negar zotin...
 Ľilar-ertaiak...: zugaitz-azpian
 orain jařiaz ats egin
 eta aspaldiko gertakizunak
 beřitzea... bai atsegin!

VI

Nola ez bada, Maria, nola
 kontu zařak ez oroitu?
 Setaera aiek oroitzean, gaur
 beřiz bizitzen ditugu...
 Gaztea nintzan, ta biotzean
 bakartasuna nabaitu;
 lagun on asko, bařa lagunak
 ezin ninduten sendatu,
 nere biotza maitasun-miřak
 bai zun bizi-bizi ikutu...
 Orduan zugar begiak jaři,
 ta zu zindun aukeratu.

VII

N

ik ezin aritu gero izan nihen
 buru-custe ta izerdiak.
 Itz egitea bear-beaia,
 baia ango itxilu goiariak...:
 itz bai..., nola, noiz ta nun, ordea...?
 ba-ziran egun laiaak...
 Artan, bein batez, zure ondotik
 igaro, bion begiak
 alkaia une bat begiratu...;
 zureen "diz-diz" biziak
 ta "agur" xamuiak, kendu zituzten
 nere erta-baida guziak.

VIII

B

eldur guziak utzi nitula...?
 Nik orduan bai uste izan...
 Bereala amets goxo atsegin
 artatik esnatu nintzan.
 Ainbeste gauz nik esatekoak
 ta itz bakaik ezin esan...:
 "dar-dar gorputza, legor ertzari,
 odolik gabe zañetan,
 itz-aldi ondo antolatua
 amaitu nitzun bi itzetan...
 Oraindik ere nik paregiten
 gauz oiek bururatzean.

IX

Lanean baño nekatuago
geratu nintzan ondoren:
lañtasuna, erin-egona
ta beldur asko bañen;
izerdi otza kopetan; begi
ta belari erne zenden...
Eta zuk, Maria, laisterka arnasa,
esku biak egortzitzen,
koloreak jun eta etori,
bur-aldera begiratzen...,
egon-aldi bat..., gero, ixil-ixil
baietz erantzun zenduen.

X

Baietz, Maria, baietz erantzun...!
Ura zorion betea...!
"Bai" bakar aitek, ixila, baña
zenbat esan nai, ordea...!
"Bai" ura izan zan nere nai gabe
guzien sendagilea;
gure biotzak sendo lotuta
ipintzen zitun katea;
arteko gure bizitzak utzi
ta beñi baten bidea,
ta gure sendi onen azia
ta oñaria jartzea.

XI

Gero etori ziran egunak,
zer egunak izan ziran...!
Gu biok bezin zoriontsunik
bai o-te zenu aspian...?
Gure por aiek, gañezkatuaz,
guzia alaitzen zun biran:
alai kanpoan sorota mendi,
alai txoriak aidian...
Eta guk...-nola ez...-guk, zer egiñak
amaituta, ilun-sentian,
aspertu ezin, zenbat itz-aldi
Martilun'go atadian...!

XII

Ametsak amets ziran artean...
Jaungoikoak nai, ordea,
mendian ziran bi bide aiek
aurea bat egitea
ta bide bakar artan, il arte,
alkarekin ibiltzea...
Eta ametsak egi biurtu ziran...
Bai goxoa esnatzea...!
Saur ogei ta bost urte izan gendun
mendi-gorantz alkartzea...!
Saur ogei ta bost urte lenengoz
deitu nitzun "ematea"...!

XIII

Egun aundia gañeratu zan...
 Gaber, begiak zabalik,
 oiean nintzan poz eta kezka
 nere loa galaxirik.
 Poza, aspaldiko gure asmoak
 gain-gainean ikusirik;
 gure bizitzak, len bi ziranak,
 bat egiten oarturik.
 Etorkizuna jakin ez baña,
 ta kezka-re ba-nuen nik.
 Kezka ta poza: erne egoteko
 gutxi, noski, gauz oberik...

XIV

Goiza auzeratzen, lagunekin bat
 egin da elizaratu...;
 etori apaiz jauna, ta txandan
 zuri ta neri galdetu:
 "senartzat artien...? zuk emartetzat...?"
 Guk, ixil-ixil, baieztu...;
 amairu diru ta eratzunak
 apaiz jaunak onespendu
 ta ipini nere beatzean bat,
 zure eratzuna nik artu,
 bere tokian sartu...; diruak
 zure eskuetan pilatu...

XV

Esku banatik artu apaizak
ta aldare aurrean jañi...;
Mera...; orduan bañena oso
basaitu zitzaidan neri...
A, zenbat esker bero biotzak
ta zenbat otoitz Jaunari...:
Gure sendia bere-beretzat
eskeñiar Jesus'eri,
añen eskatzen nion laguntza
eman zeraigula guri...
Ogei eta bost urte...; baña atzo
iruditzen biotzari...!

XVI

Ta elizatik alai atera
gu, lagunak ta sendia;
jaia alaitzeko, an ikusten zan
goian alai eguzkia;
ango "xorion" eta "urte askoz"
ta "gora sendi beñia...!"
Gero, Zarautz'en, alaitasuna
gañez zala, barkaria;
uñen, batetik bestera, eñiz-
eri, zu ta ni, Maria...
Sendik asmaak amets bar-ziran,
egun ura ametsgañia.

XVII

Artean biok "zu" ta "ri" giñan,
 Maria; ondorendik, "gu";
 "zure" ta "nere" ziran guziak,
 orduan "gure" biurtu:
 sendi...ondasun...etxe...guziak
 "gure-gureak" ditugu;
 poza etxean sartu danean
 beti biok gero portu;
 negar-aldia zala gurekin,
 malkoa alkarri txukatu.
 Eta korapilo au, eriotzak
 ez bada, ezin askatu.

XVIII

Orain poza ta gero negara;
 beti baña maitasuna...
 Maite izatea, senar-emazteen
 berdin-gabeko ondasuna,
 alartasunak ugarituar
 gurutzera arintzen duna,
 zeru txiki bat Jaunak lurrean
 jari nai izandu diguna...
 Ogei eta bost urtetan ori
 guk ezagutu deguna.
 Eskerak zuri, bear bezela,
 nola eman, nola, Jauna...?

XIX

Gau ta egunen antzera, txandan,
diranez poz-naigabeak,
zenbat poz eta zenbat naigabe
izandu dira gureak...!
Pozak...: eririk-erri ahaitsu
egindako iru asteak;
gure etxetxoan lenengoz sartu
taango gauz antolatzeak;
sasoi artako otordu, kontu
ta asmo ametsez beteak...,
pozez lertzeko erabigendun-ba
bi ezkonbeñi gasteak...?

XX

Zorion ura gañezkatzeko,
semetxo ta alabatxoak,
gu alaitzeko zarpi aingeru
zerutik jexitakoak...
Nolako pozak lenengo aldiz
ematean "pa" goxoak!;
ta bataioko jai-egunetan,
ta azaltzean "kikatxoak",
ta "taka-taka" txutik astean,
ta jaun-artze egunekoak,
ta jolasean alai ikusirik,
ta asko geiago orlakoak...!

Ta beste mila zorion-alde
 ez dauzkat, ez, nik artuak...:
 erbesten iru urte egin nik, ta
 gure etxean izandua;
 senditar danok anai bezela
 maite izateak ditinak;
 bai ta-re ikustez gure lan, neke
 ta izerdiak sariñuak;
 bai ta... guriak nik ezin esan,
 asko ditugu ta artuak:
 Sañitan gure alde zabaldun
 ditu Jaunak bere eskuak.

Pozak, ordea, sañi ondoan
 zalantza ta zori-txañ...:
 Artean txiki-txiki Joxe Luix,
 gure semetxo bakaña,
 ta gaitzak bere mende arturik
 bazan etxean negaña...
 Geroztik noiz nai, bat oñazetan
 edo besteak sukaña,
 seaska auñetik aldatu gabe,
 nai gabez lertu beaña,
 garbi azaldu dezu, Maria,
 maitasunaren indaña...

XXIII

Eta gututzen eriotzakin
 ixuritako malxoak...
 Ze utstasun utzi ziguten gure
 senide ta gurasoak...!
 Eta Bergara'ko "agur" samiñak
 amaitu ezindakoak...!?
 Gero, gorputzez iru urte Kantzi'n
 baña Altzai'n beti asmoak.
 Artan..., naikoa ez bakar-miña
 ta ala nai zori-gaiztoak,
 iges zerura, laztan bat gabe,
 Jon Andoni potxoloak...!

XXIV

Sañi-sañitan izan oi dira
 auzo, beroa ta otza,
 ura ta sua, on eta txar'ak,
 sasoi'a ta eriotza.
 Sañitan gure bizitzan ere
 atsegin ta min zoñotza;
 txandaka batak eta besteak
 ikutu dute biotza.
 Benar astuna neke ta miñak
 jartzen diguten moñotza,
 baña zeruko bideak, lore
 baño geiago arantza.

XXV

Z

ugaitz-ondocin aize edera artu,
 • begira gora ta bera,
 gurtiz atsegin, Maria, izan da
 gure gaurko egoera;
 nekeak utzi, asmas-lasaitu,
 bai ta indar-beñitu gera.
 Altxa gaiteren orain, ta ekin
 beñiro galur aldera.
 Baño lenago jaso biotzak,
 mahur belarriak luñera,
 ta zeruko Jaun onari otoitz
 daiogun biok batera:

XXVI

"Z

ilar-etaiak ditugula-ta,
 geiago ezin alaitsu,
 Jesus, gaur emen zure oñetan
 Maria ta ni gauzkatu.
 Umetxo argal batzuek gera;
 Zuk guzia dezakezu.
 Zugar sinistu, Zugar itxaron
 eta zu maite zaitugu...
 Biotz bañendik dijoazen itz
 auek ontzat artu-itzazu
 ta oraindano bezela, Jauna,
 auzera lagun gaitzazu"

XXVII

"Ogei eta bost urte abetan,
aldiz alai, aldiz ilun,
seme-alaba taldea zure
lege-pean ari gendun
Zuri eskeintzen dizkizugu gaur
sendi, poz ta samintasun...
Egin, Jauna, aŕen, guk lutean zu
maitatuaz gau ta egun,
zeruan beŕiz bat egitea
guraso, semetxo kutun
ta senideekin, danok ostera
sendia an osa dezagun."

Alkiza'tar Luix
ta
Elizalde'tar Mariaren
Zilar-estaltetan.

1951'gn urteko Urtilaren 2'an.



Biotz-biotzez, zuen lagun
Roman'ek

